


5. ELIKAGAIAK LORENTXOREN SARRERAKO GUTUNA



Kaixo, lagunak:

Hemen naiz berriz ere, ez naiz zuetaz ahaztu, eta zuek nitaz? Bai? Ai, ai, ai.

Ba, nik etortzen jarraituko dut,e! Ni ez naiz aspertu! Beti dago egiteko zerbait eta baita ikasteko ere.

Eta, zuek, zer ikasi nahi duzue? Nik, gauza asko. Bat esatea zaila da, baina, adibidez, adibidez... Zer iruditzen zaizue elikagaiak ikasten baditugu? Jatea gustatzen zaizue, ezta? Niri, bai, izuuuuugarri!!!

Beñati eta Iratiri ere txokolatea jatea asko gustatzen zaie. Eta Argik? Argik aurrean harrapatutako guztia jaten du, zelako tripa-festak egiten dituen!

Denetik jan behar da handi egiteko, ez asko eta ez gutxi, zuek ondo ikasi.

Beno, hurrengoan zuek kontatuko didazue zer egiten duzuen.

Muxu handi bana!

Lorentxo

